Lezoko Unibertsitateko Udala

Elkar zainduz Lezo

2026ID160002

TXOSTEN TEKNIKOA / MEMORIA

ESPEDIENTEAREN DATUAK

Gaia:	**ZERBITZU KONTRATAZIOA – PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA**
Zerbitzua:	**LEZOKO JAIZKIBEL HIRIBIDEKO 21 ETA 49 ZENBAKIEN ARTEAN BIDEGORRIA ETA ESPALOIA BERRANTOLATZEKO OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA**
Kokapena:	**JAIZKIBEL HIRIBIDEA 21-49**
Obraren espedientea:	**2026H0110001**
Obraren aurrekontua:	**586.653,18 € (GAUZATZE MATERIALAREN AURREKONTUA)**
Zerbitzuaren aurrekontua:	**20.230,00 € (BEZ GABE)**

TXOSTENA

2026ID160002

TXOSTENAREN EDUKIA:

1	KONTRATUAREKIN BETE BEHARREKO BEHARRA ETA OBJEKTUAREN ETA EDUKIAREN EGOKITASUNA.	3
1.1	ZERBITZUAREN IRISMENA	3
1.2	KONTRATUA LOTETAN BANATZEA	4
2	KONTRATUAREN OINARRIZKO DATUAK	4
2.1	KONTRATU MOTA	4
2.2	IRAUPENA ETA GAUZATZE EPEA	4
2.3	ALDAKETAK	4
2.4	AURREKONTUAREN XEHETASUNAK	5
2.5	PROZEDURA ETA IZAPIDETZEA	5
3	KAUDIMENA ETA GAIKUNTZA	6
3.1	GAIKUNTZA PROFESIONALA	6
3.2	EKONOMIA- ETA FINANTZA-KAUDIMENA	6
3.3	KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA	6
4	BALIABIDEAK ATXIKITZEA	6
4.1	OBRA ZUZENDARIA	6
4.2	INDEPENDENTZIA	7
5	BALORAZIO IRIZPIDEAK	7
5.1	BALIO-JUDIZIOAREN BITARTEZ BALORATUTAKO IRIZPIDEAK 35 puntu geh.	7
5.2	FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK 65 puntu geh.	8
5.3	EZOHIKO ESKAINTZA BAXUAK	8
5.4	IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK, BERDINKETAK DESEGITEKO	8

1 KONTRATUAREKIN BETE BEHARREKO BEHARRA ETA OBJEKTUAREN ETA EDUKIAREN EGOKITASUNA.

Kontratu honen helburua Lezoko Jaizkibel hiribideko 21. eta 49. zenbakien artean bidegorria eta espaloia berrantolatzeko obren zuzendaritza fakultatiboa da.

Obra 2026H0110001 espedientean kontratatuko da, prozedura irekiaren bidez. Haren gauzatze materialeko aurrekontua 586.653,18 €-koa da, lizitazio aurrekontua 698.117,28 €-koa (BEZ gabe) eta gauzatze epea 7 hilabetekoa.

Obraren bidez kalea berrurbanizatuko da: bidegorriaren kota jasoko da espaloiarenarekin berdindu arte, horren azpitik igarotzen diren hainbat zerbitzu berrituko dira eta proiektuak deskribatzen dituen oztopoak kenduko dira. Kale horretatik GI-3440 errepidea igarotzen da, noranzko bakoitzeko errei batekin, bai eta Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialeko 1. ibilbideko bidegorria ere (Donostia–Irun).

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 62.2 artikuluak eta 237.-246. artikuluek ezartzen dutenez, obra kontratuak zuzendaritza fakultatiboaren ardurapean gauzatu behar dira. Udalaren zerbitzu teknikoek ezin dute bermatu obra honek eskatzen duen dedikazioa; horregatik, zuzendaritza kanpoko profesional edo enpresa bati kontratatu behar zaio.

Segurtasun eta osasun koordinazioa ez da kontratu honen xedean sartzen; aparteko kontratu baten bidez kontratatuko da.

CPV KODEA: **71520000-9** (obrak ikuskatzeko zerbitzuak)

1.1 ZERBITZUAREN IRISMENA

Zuzendaritza fakultatiboak SPKLk, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua) eta preskripzio teknikoen pleguak ezartzen dituzten eginkizunak beteko ditu, obra hasi aurretik, obra gauzatu bitartean, harreraren ondoren eta berme epean. Besteak beste:

- Obra proiektua berrikustea eta hautemandako akatsak edo zehaztugabetasunak Udalari jakinaraztea.
- Kontratistaren lan programari, hondakinak kudeatzeko planari eta kalitatea kontrolatzeko planari buruzko txostenak egitea, Udalak onar ditzan.
- Zuinketa egiaztatzeko akta egitea (SPKLren 237. art.).
- Obra bisitatzea, gutxienez astean behin, bisita bakoitzaren akta egitea eta aginduen eta asistentzien liburua eramatea.
- Obraren kalitatea, epeak eta kostua kontrolatzea, hileko txostena egitea, eta hileko neurketak eta ziurtagiriak egitea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin (GI-3440 errepidea eta bidegorria), zerbitzu konpainiekin, segurtasun eta osasun koordinazioarekin eta udal zerbitzu teknikoekin koordinatzea.
- Proiektua aldatu behar bada edo prezio kontrajarriak behar badira, dagozkion dokumentu teknikoak egitea.
- Obraren harrera akta sinatzea, neurketa orokorra eta azken ziurtagiria egitea, eta obra amaierako dokumentazioa aurkeztea.
- Berme epea amaitu aurreko hamabost egunetan, obraren egoerari buruzko txostena egitea (SPKLren 243. art.).

Zerbitzuaren baldintza zehatzak preskripzio teknikoen pleguan jasotzen dira.

1.2 KONTRATUA LOTETAN BANATZEA

Kontratua ez da loteetan zatituko. Obra baten zuzendaritza fakultatiboa prestazio bakarra eta zatiezina da: arduradun bakar batek zuzendu behar du obra osoa, eta prestazioa zatitzeak kontratua ikuspegi teknikotik behar bezala gauzatzea zailduko luke (SPKLren 99.3.b art.).

2 KONTRATUAREN OINARRIZKO DATUAK

2.1 KONTRATU MOTA

Zerbitzua (SPKLren 17. art.). Arkitektura eta ingeniaritza zerbitzua denez, izaera intelektualeko prestazioa da (SPKLren 41. xedapen gehigarria).

2.2 IRAUPENA ETA GAUZATZE EPEA

Kontratua formalizatzen denetik obra kontratua likidatu arte egongo da indarrean, hau da, obra gauzatzeko epean eta obraren berme epean. Kontratuaren iraupena, beraz, obra kontratuaren iraupenari lotuta dago (SPKLren 29.7 art.).

Nolanahi ere, kontratua ez da amaitutzat emango esleipendunak eskatutako obra dokumentazio guztia aurkeztu eta udal zerbitzu teknikoek haren adostasuna eman arte.

Ez da luzapenik aurreikusten. Obraren gauzatze epea luzatzen bada, zuzendaritzak obra amaitu arte jarraituko du, eta 2.3 atalean aurreikusitako aldaketa aplikatuko da.

2.3 ALDAKETAK

2.3.1 Aurreikusitako aldaketak

Kontratuaren indarraldian zehar, Lezoko Udalak kontratua aldatu ahal izango du, interes publikoaren ondorioz, honako egoera hauetan (SPKLren 204. art.):

- Obraren gauzatze epea luzatzea, zuzendaritza fakultatiboari egotz ez dakizkiokeen arrazoiengatik, eta, horren ondorioz, zuzendaritzak obran dedikazio gehigarria eman behar izatea.
- Obra kontratua aldatzea (SPKLren 203, 205 eta 242. art.), eta aldaketa horrek zuzendaritzaren lan gehigarria eskatzea (aldaketaren dokumentazio teknikoa, prezio kontrajarriak, neurketa berriak).

Aldaketek ezin izango dute kontratuaren izaera globala aldatu.

Prozedura:

Aldaketa kontratazio-organoak onartu beharko du, SPKLren 203. eta 204. artikuluetan ezarritakoaren arabera, kontratuaren arduradunak aldaketaren beharra, irismena eta zenbatekoa justifikatzen dituen txostena egin ondoren. Onartu ondoren, aldaketa formalizatu eta argitaratu egingo da (SPKLren 203. eta 207. art.).

Kopurua:

Aldaketek kontratuaren prezioa gehienez hasierako prezioaren % 15ean handitu ahal izango dute (SPKLren 204. art.): 3.034,50 € (BEZ gabe), 3.671,75 € (BEZ barne). Zenbatekoa honela kalkulatuko da:

- Obraren epea luzatzen bada: luzatzen den hilabete bakoitzeko, obra gauzatu bitartean zuzendaritzari ordaintzen zaion hileko zenbateko bera ordainduko zaio, hau da, adjudikazio prezioaren % 10. Hilabete zatiak proportzionalki ordainduko dira.
- Obra kontratua aldatzen bada: zuzendaritzak aldaketa horren ondorioz egin behar duen lan gehigarriaren arabera, kontratuaren arduradunak txosten batean justifikatuta.

2.3.2 Ez aurreikusitako aldaketak

Kontratu hau gauzatzen den bitartean, SPKLren 205. artikuluari jarraituz, aurreikusi gabeko aldaketak egin ahal izango dira, betiere interes publikoko arrazoiek behartuta eta araudian ezartzen diren baldintzapean.

2.4 AURREKONTUAREN XEHETASUNAK

Aurrekontua zerbitzuak eskatuko duen dedikazioaren estimazioaren bidez kalkulatu da. Kostu zuzenetan sartzen dira langile teknikoaren soldata kostuak, Ingeniaritza enpresen eta azterketa teknikoen bulegoen estatuko hitzarmen kolektiboa eta merkatuko prezioak kontuan hartuta kalkulatuak, bai eta joan-etorriak eta baliabide materialak ere (SPKLren 100.2 eta 102.3 art.).

KOSTU ZUZENAK ..... 17.000,00 €

13,00 % Kostu zeharkakoak ..... 2.210,00 €

6,00 % Industria mozkina ..... 1.020,00 €

LIZITAZIO AURREKONTUA BEZ GABE ..... 20.230,00 €

BEZ % 21 ..... 4.248,30 €

GUZTIZKO LIZITAZIO AURREKONTUA ..... 24.478,30 €

2.5 PROZEDURA ETA IZAPIDETZEA

Kontratuaren ezaugarrien eta balio zenbatetsiaren arabera, proposatutako lizitazio-prozedura ireki sinplifikatua izango da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Prozedura horren bidez, enpresa interesdun guztiek proposamen bat aurkezteko aukera izango dute, eta ezingo da kontratuaren baldintzei buruzko negoziaziorik egin lizitatzaileekin. Horrela, lehia askea, gardentasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzen dira, eta kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza hautatzen da.

Izapidetzea arrunta izango da.

3 KAUDIMENA ETA GAIKUNTZA

3.1 GAIKUNTZA PROFESIONALA

Obra zuzendaria izango den pertsonak urbanizazio obrak eta bide-obra zibilak zuzentzeko titulazio akademiko eta profesional gaitzailea izan beharko du (adibidez: bide, ubide eta portuetako ingeniaritza; herri lanetako ingeniaritza teknikoa edo ingeniaritza zibileko gradua; arkitektura) eta, hala badagokio, dagokion elkargo profesionalean kolegiatuta egon beharko du (SPKLren 65.2 art.).

3.2 EKONOMIA- ETA FINANTZA-KAUDIMENA

Hurrengo bi bideetako baten bidez egiaztatuko da (SPKLren 87.1 art.):

a) Urteko negozio bolumena: eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietan negozio bolumen handiena izan duen urtean, gutxienez 30.000 €. Merkataritza Erregistroan gordailututako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, edo, Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden enpresaburu indibidualen kasuan, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario eta urteko kontuen liburuen bidez.

b) Lizitatzailea profesional bat edo sozietate profesional bat denean: arrisku profesionalen kalte-ordainetarako asegurua, gutxienez 300.000 €-koa, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunean indarrean dagoena, kontratua amaitu arte mantentzeko konpromisoarekin batera. Aseguru-etxearen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

Negozio bolumenaren zenbatekoa kontratuaren tamainarekiko proportzionala da, balio zenbatetsiaren 1,5 aldiz baino txikiagoa baita (SPKLren 87.3.a art.).

3.3 KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA

Azken hiru urteetan egindako antzeko zerbitzu nagusien zerrenda (urbanizazio, bide edo obra zibileko obren zuzendaritza edo zuzendaritzari laguntza teknikoa), zenbatekoa, data eta hartzaile publiko edo pribatuak zehaztuta (SPKLren 90.1.a art.). Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo bisatutako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira zerbitzuak; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiriaren bidez edo, ziurtagiririk ezean, enpresaburuaren adierazpenaren bidez.

Gutxieneko baldintza: hiru urte horietan exekuzio handieneko urtean metatutako zenbatekoa 14.000 €-koa edo handiagoa izatea (lizitazio aurrekontuaren % 70 inguru).

Sortu berri diren enpresak (bost urtetik beherako antzinatasuna dutenak): ez zaie zerbitzuen zerrenda eskatuko. Kaudimen teknikoa kontratua gauzatzeko arduradunaren titulazio akademiko eta profesionalen bidez egiaztatuko da (SPKLren 90.1.e eta 90.4 art.), 3.1 atalean eskatutakoaren arabera.

4 BALIABIDEAK ATXIKITZEA

4.1 OBRA ZUZENDARIA

Lizitatzaileak konpromisoa hartuko du kontratua gauzatzeko obra zuzendari gisa honako baldintza hauek betetzen dituen pertsona bat atxikitzeko (SPKLren 76.2 art.):

- 3.1 atalean eskatutako titulazio akademiko eta profesional gaitzailea.
- Gutxieneko esperientzia: azken hamar urteetan, urbanizazio, bide edo obra zibileko obra bat gutxienez zuzendu izana, 300.000 €-ko edo gehiagoko gauzatze materialeko aurrekontuarekin.

Proposatutako pertsona baliabideak atxikitzeko konpromisoan identifikatuko da, eta esleipendun gisa proposatutako enpresak haren titulazioa, kolegiazioa eta esperientzia egiaztatuko ditu esleipenaren aurretik.

Konpromiso hori kontratuaren funtsezko betebeharra da (SPKLren 211.1.f art.). Atxikitako pertsona Udalaren aldez aurreko baimenarekin baino ezin izango da ordeztu, eta titulazio eta esperientzia berdina edo handiagoa duen beste pertsona batekin.

4.2 INDEPENDENTZIA

Zuzendaritza fakultatiboaren esleipendunak ezin izango du loturarik izan obraren esleipendunarekin (enpresa talde berekoa izatea, edo obran lan- edo merkataritza-harremana izatea). Obra esleitu ondoren, interes-gatazkarik ez dagoela adierazten duen aitorpena aurkeztuko du (SPKLren 64. art.).

5 BALORAZIO IRIZPIDEAK

5.1 BALIO-JUDIZIOAREN BITARTEZ BALORATUTAKO IRIZPIDEAK — 35 puntu geh.

5.1.1 Zuzendaritzaren memoria metodologikoa — 35 puntu geh.

Proiektuaren eta haren ingurunearen ezagutza baloratuko da, bai eta lizitatzaileak obra hau zuzentzeko proposatzen duen metodologiaren egokitasuna ere. Azaldutakoa obra honi berariaz egokitua, zehatza, arrazoitua eta errealista izatea baloratuko da; edozein obratan aplika daitezkeen azalpen orokorrek balorazio baxua jasoko dute.

5.1.1.a Proiektuaren azterketa eta obraren puntu kritikoak — 15 puntu

Proiektuaren ezagutza; zailtasun nagusiak identifikatzea (GI-3440 errepideko trafikoa eta bidegorriaren erabilera obrek iraun bitartean mantentzea, lurpeko zerbitzuak berritzea, oinezkoen irisgarritasuna eta atarietarako eta saltokietarako sarbidea) eta horietako bakoitzaren aurrean zuzendaritzak hartuko dituen kontrol neurriak.

5.1.1.b Obra zuzendaritzako metodologia — 12 puntu

Kalitate kontrola (materialen onarpena, saiakuntzak eta obra unitateen egiaztapena), kontrol ekonomikoa (neurketak, ziurtagiriak eta desbideraketak hautematea) eta epeen kontrola (lan programaren jarraipena eta atzerapenen aurrean jarduteko modua).

5.1.1.c Koordinazioa eta komunikazioa — 8 puntu

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, zerbitzu konpainiekin, segurtasun eta osasun koordinazioarekin eta udal zerbitzu teknikoekin koordinatzea; obraren dokumentazioaren kudeaketa; Udalari aldian-aldian informazioa ematea, eta bizilagunei eta saltokiei informazioa ematea.

Lehen atal honetan lortutako puntuazioa kontuan hartzeko, lizitatzaileek % 50 edo hortik gorako puntuazioa lortu beharko dute, hau da, 17,5 puntu. Gutxieneko hori gainditzen ez bada, eskaintza prozesutik kanpo geratuko da.

Memoriak gehienez 15 orrialde izango ditu (DIN A4, Arial 11, tarte sinplea), azalak eta aurkibideak kontuan hartu gabe.

5.2 FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK — 65 puntu geh.

5.2.1 Eskaintza ekonomikoa, lizitazio aurrekontuaren arabera — 45 puntu geh.

Honako formula hau erabiliko da eskaintza ekonomikoa balioesteko:

$$P = \frac{EO \times P_{GEH.}}{BE}$$

Non:

- P: balioesten ari den eskaintzak lortutako puntuazioa.
- EO: aurkeztutako eskaintza onena (baxuena).
- PGEH: lor daitekeen gehieneko puntuazioa.
- BE: balioetsi beharreko eskaintza.

Aparteko kontu sail modura, Administrazioari egokituko zaion Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa adierazi beharko dute lizitatzaileek.

Oharra: BEZa ez da kontuan hartuko balioespenean.

5.2.2 Obra zuzendariaren esperientzia gehigarria **9 puntu geh.**

3 puntu emango dira obra zuzendari gisa proposatutako pertsonak azken hamar urteetan zuzendu duen urbanizazio, bide edo obra zibileko obra bakoitzeko, baldin eta haren gauzatze materialeko aurrekontua 300.000 €-koa edo handiagoa bada, 4.1 atalean gutxieneko gisa eskatutakoaz gain. Gehienez 9 puntu (hiru obra).

Obra bakoitza sustatzailearen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da; bertan obra, gauzatze materialeko aurrekontua, datak eta betetako eginkizuna agertuko dira. Modu horretan egiaztatzen ez diren obrak ez dira baloratuko.

5.2.3 Obra bisita gehigarriak **6 puntu geh.**

Preskripzio teknikoen pleguak gutxienez asteko obra bisita bat eskatzen du. 6 puntu emango zaizkio obra gauzatzen den bitarte osoan astean bi bisita egiteko konpromisoari, eta 0 puntu gainerako kasuetan. Bisita bakoitza akta baten bidez dokumentatuko da.

5.2.4 Genero berdintasuna **5 puntu geh.**

a) Genero ikuspegia obra zuzendaritzan txertatzeko konpromisoa (3 puntu). Lizitatzaileak konpromisoa hartzen du zuzendaritza fakultatiboaren hileko txostenetan honako hauek sartzeko:

- Obran lan egiten duten langileen datuak (kontratista eta azpikontratistak), sexuaren eta lanbide kategoriaren arabera banakatuta.
- Obrek iraun bitarteko behin-behineko oinezko ibilbideen berrikuspena, genero irizpideekin: ibilbideak jarraituak, seguruak eta argiztatuak izatea, eta haur-kotxeak dituzten pertsonentzat, adinekoentzat eta mugikortasun murriztua duten pertsonentzat irisgarriak izatea, bereziki atarietarako, saltokietarako eta geltokietarako sarbideetan.

Halaber, dokumentazioan eta bizilagunei eta saltokiei zuzendutako informazioan hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzeko konpromisoa hartzen du. Konpromisoa betetzen dela hileko txostenetan egiaztatuko da.

b) Proposatutako obra zuzendariaren berdintasun prestakuntza (2 puntu). 2 puntu emango dira obra zuzendari gisa proposatutako pertsonak emakumeen eta gizonen berdintasunari edo genero ikuspegidun hirigintzari buruzko gutxienez 20 orduko prestakuntza egiaztatzen badu, prestakuntza eman zuen erakundearen ziurtagirien bidez.

5.3 EZOHIKO ESKAINTZA BAXUAK

Hasiera batean, aurkeztu diren baliozko eskaintza guztiekin alderatuta, neurriz kanpoko edo normaletik kanpoko eskaintzak daudela uste badu, Kontratazio Organoak SPKLren 149. artikuluan jasotako prozedura

jarraitu beharko du. Eskaintza neurriz kanpokoa edo normaletik kanpokoa dela ulertuko da haren eskaintza ekonomikoak 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. artikuluko baldintzak betetzen dituenean.

5.4 IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK, BERDINKETAK DESEGITEKO

SPKLren 147.2 artikuluan aurreikusitakoak.